

Euskal nortasunaren irudiak XIXgarren mendeko bigarren partean

(Images of Basque identity during the
second half of the 19th century)

Casenave, Jon
Eleganea
F-64690 Hélette

XIX. mendean euskal nortasuna hornitzeko landu zen kultura iruditerian, irudi eta motibo estetiko sail bi aurkitzen ditugu: lehenak ikuspegi eguzkitsu eta heroikoa eskaintzen duen bitartean, bigarrena azken mende laurdenaren giro ilunaren isla da. Aurrenekoa mendearen lehen erditik hara garatu zen, Europako zientzia munduak Euskaldunen eta haien hizkuntzaren etorkiaz ardurua handia erakutsi zuen garaian hain zuzen. Geroago, idazleak, bai bidaiari ibili zirenak eta bai euskaldunak berak, gehienbat euskararen eta nortasun propioaren iraupenaz arduraturik ageri dira, eta urte gutxitan eguzkiaren mitotik ilundurazko ikuspegira pasa zen.

Giltz-Hitzak: Nortasun irudiak. Motibo estetikoak. Euskal nortasuna. 19. mende ondara.

Dans l'imagerie culturelle élaborée au cours du XIXe siècle pour illustrer l'identité basque, on trouve, en simplifiant, deux séries de représentations et de motifs esthétiques: l'une offre une vision solaire et héroïque, l'autre reflète le climat assombri du dernier quart de siècle. La première et se développe dès le milieu du siècle, alors que le monde savant européen manifeste un grand intérêt pour la question de l'origine des Basques et celle de leur langue. et les écrivains. Plus tard, les auteurs de passage comme les écrivains bascophones se montrent essentiellement préoccupés par la survie de la langue basque et celle de l'identité elle-même et, en quelques années, on passe du mythe solaire à une perspective crépusculaire.

Mots Clés: Images identitaires. Motifs esthétiques. Personnalité basque. Fin du XIXème siècle.

En la imaginería cultural elaborada en el S. XIX para ilustrar la identidad vasca se encuentra, simplificando, dos series de representaciones y motivos estéticos: la primera ofrece una visión solar y heroica, la otra refleja el clima ensombrecido del último cuarto de siglo. La primera se desarrolla a partir de la mitad del siglo, cuando el mundo científico europeo manifiesta un gran interés por la cuestión del origen de los Vascos y de su idioma, y los escritores. Más tarde, los escritores de paso como los escritores vascófonos estan principalmente preocupados por la supervivencia de la lengua vasca y de la identidad propia, y en pocos años se pasa del mito solar a una perspectiva crepuscular.

Palabras Clave: Imágenes identitarias. Motivos estéticos. Personalidad vasca. Finales del siglo XIX.

Egungo gaian sartzeko, egin dezagun mende baten jauzia atzera. 1897.an aurkitzen gira. Zergatik 1897-an? Ondotik heldu diren garrantzi handiko hiru gertakariengatik, hain zuzen. Dakizueenez, urte hartan berean Antoine d'Abbadie hiltzen da eta harekin batean, menturaz, Euskal nortasunaren garai bat bururatzen da, nahiz orduko jendeak ez diren hortaz ohartzen oraino.

Alabainan, nola kontura daitezke? D'Abbadie-k abiatu eta bultzatu zituen Euskal Pestak guziz indarrean daude eta, 1897-an Donibane Lohitzunen omen handiko pestak ospatzen dira.

1897-an beti, P. Loti-k *Ramuntcho* eleberri arrakastatsua argitaratzen du eta badakigu denek Euskal nortasunaren irudia, luzaz, liburu hortan dagoen Euskaldun arketipoarekin lotua izana dela. Hori, batez ere kanpoko jendeentzat, bainan, uste baino gehiago Euskaldunentzat ere, XX-garren mendeko lehen partean arizan diren idazle gazteentzat, J. Etchepare, P. Lhande, J. Barbier adibidez.

Beraz, urte muga horren inguruan, badugu Euskal nortasunaren bilduma baten egiteko parada. Lehen parte batean, zertan zen Euskal nortasuna joan den mende ondarrean ikusiko dugu eta, bigarreanean, zer itxura eta jauntzi eman zizkieten orduko jendeek.

1. EUSKAL NORTASUNA XIX-GARREN MENDE BUKAERAN

Mende ondarreko giroa gibelatzapen poxi batekin ikusi eta, badirudi, "consensus" edo adostasun¹ moduko zerbait badela Euskal nortasunari buruz, eskualde hontako gizartean. Har dezagun Donibaneko Euskal Pestek emaiten diguten adibidea. Iduri luke, Euskal nortasuna, behin betikotz, –orduko jendeen ustez segurik– onartua eta finkatua dela. Pierre Loti edo Charles Bernadou-ren kronikek garbi uzten digute ospakizun guziak arrakastatsuak izan zirela.

Hunaindiko ahaldun aintzek parte hartu zuten besta horietan. Politika gizonak hor ziren, gorbarnamenduak igorri ordezkaria, de Fourcaud jauna barne, baita ere beste gisako kargudun frango. Instituzioak ere, zoin bere sailean agertu ziren, hala nola, Eliza, Armada eta Administrazioa, baita ere zientzia gizon eta jakintsun batzu biltzen zituen erakunde bat, "La Société d'Ethnographie et d'Art populaire". Jende famatuak ere baziren, hemengoak, Léon Bonnat margolaria eman dezagun edo berdin kanpotik heldu ziren artistak eta idazleak, hala nola Pierre Loti, ordukotz Frantses Akademian sartua zena.

Arrakasta gaitza kargudun eta gizarte buruen artean beraz, bainan karririk ere jendez beteak ziren Charles Bernadou-k utzi dizkigun xehetasunen arabera. Jende alde handi hortan, hemengo jendeak, gizarte mail guzietakoak eta Pierre Loti-k dionez, kostalde hontarat denbora pasa heldu ziren aberats horietarik frango ere bai. Beraz, ezagutza ofiziala, arrakasta publikoa, eta moda mugimendu bat bezala Euskal nortasunaren alde kostaldeko klase kosmopolitoen mundu hetsi hortan. Beraz, badirudi erroak egin dituela gizarte mail guzietan Euskal nortasunak eta sozial mugimendu bezala onartua eta ezagutua dela. Beste molde batez ere finkatu ditu bere erroak denbora berean. Dakizuen bezala, Euskaldunak eta euskara aipa-gai, azter-gai eta idaz-gai bilakatu dira XIX-garren mendean.

1. Halarik ere, ez da ahantzi behar Julien Vinson eta beste jende batzu pesta horietarik kanpo atxiki zituztela Donibaneko antolatzaileek. P. Charriton-ek orduko eztabaidak aztertzen ditu P. Broussain-i buruz egin duen ikerlanean (Ikus Bibliografia).

Gainera, Euskal pesten bidez batez ere, Euskal nortasun hori ikus-gai bilakatu da. Ondorio ainitz ekarri ditu plazaratze horrek, dela ezagutza ofiziala mailan, dela irudien zabalteari begira. Estetikaren aldetik, orduko literatur sortzailerri hazkurri nasaia eman die.

Beraz, labor-bilduz erraiten ahal da: alde batetik XIX-garren mende ondarrean, Euskal nortasuna ezagutua dela orduko gizartean eta bestaldetik, azter-gai eta eder-gai bezala hartua dela, hemen, eta Euskal herritik kanpo ere. Ondorioak eguneroko bizian ez badira agertzen ere, ikus daiteke, mail sinbolikoan bizirik dagoela Euskal nortasuna.

2. EUSKAL NORTASUNAREN IRUDIAK XIX-GARREN MENDE ONDARREKO GIROAN

Zoin dira mende bukaeran zabaltzen ari diren nortasun irudiak? Gai hortan ez gira saiheska baizik ibiliko. Eta gaiaren barnean luzatu gabe sartzeko, baita ere orduko giroaren berri emateko, testu-zati labor batzu irakurriko dizkizuet. Donibaneko Pesten denboran zabaldua izan zen egitarau liburuttotik hartuak dira. Frantsesez emanen ditut, paperrean heldu ziren bezala:

– *Antiquité des Basques:*

Les Euskariens sont la nation la plus antique, la seule antique de l'Europe. Bien différents des paysans des autres pays, ils marchent la tête haute et les épaules effacées; ils s'inclinent rarement les premiers devant l'étranger qu'ils rencontrent; leur salut a le caractère de l'égalité. Il faut attribuer cet orgueil au sentiment qu'ils ont de l'antiquité de leur race: ils tiennent par tradition constante que leurs ancêtres furent indépendants au milieu des nations esclaves et se rappellent les droits et les privilèges dont ils jouissaient naguère encore; fiers de leur noblesse collective, ils regardent avec dédain la noblesse individuelle.

– *La Langue basque:*

La langue basque entièrement logique et bien formée ne ressemble à aucune des langues habituellement formées. (...) Elle a le privilège inappréciable d'une langue syntactique, dont la simplicité parfaite égale l'invariable régularité.

– *Organisation sociale:*

Le système fédératif a été la forme de gouvernement qui a existé chez les Basques dès la plus haute antiquité. Ils estimaient que l'homme, obligé de vivre en société, avait droit à la plus large somme de liberté, avec le moins de contrainte et de charge possible.

Ondotik heldu ziren beste bi punduetan ez naiz sartuko, izen burua baizik ez dut emanen.

– *Les parties de paume:* erran nahi baita “pilota partidak”.

– *Tambourinaires:* Atabal joileak.

Ikusten duzuen bezala, molde ulert-errexean eta itzuli handirik gabe bildu dituzte mende erdi batez euskal nortasunari buruz emanak izan diren ideia nagusiak: Euskaldunak ez dira besteak bezalakoak, erabiltzen duten hizkuntza ez da beste hizkuntzak bezalakoak eta gizarte mailan, demokrazi modu batean bizi dira beti danik.

Orduko Euskal giroan aurkitzen ziren irudi arruntetarik batzu baditugu hor. Zoin dira horien iturriak? Nola eta zertarik moldatua izan da gisa hortako ikuspegia?

a) Irudi heroikoa

Horren eredia, dudarik gabe, Euskaldunen irudi heroikoa daiteke. Itxura arkaiko eta heroiko hori, mendeko lehen laurdenean, d'Harce de Bidasouet-ek argitaratu *Histoire des Cantabres ou des Premiers Colons de l'Europe* (1825) liburuan ikusten dugu eta mende laurden bat berantago, Agusti Chaho-ren *Histoire primitive des Euskariens-Basques* (1847) delakoan ere bai. Huna orain, azken obra horri hartu zati labur bat:

Les patriarches occidentaux s'appelaient Euskariens; l'histoire des Barbares les désigne sous la dénomination de race du Soleil et de l'Agneau; ils reconnaissent pour leur ancêtre le sublime Aïtor, le premier né des Voyants.

Aipatu liburu horietan, ondoko bi ideiak barnatzen dira: Euskaldunak aspaldikoak eta bereziak dira. Bainan, ikuspegi mitiko horren ulertzeko eta ondotik ukan duen arrakastaren neurtzeko, oroitu behar da zoin izan ziren XIX-garren mende erdi inguru hortan, Euskal giroan erabiltzen ziren gaiak. Orduko idazleak Euskaldunen etorkiaren arrasto-keta zabiltzan alde batetik, bestaldetik euskararen iturri bila. Euskarari buruz, aski fite argi eta azter bide zientifikoa aukeratua izan zen, hori, xehetasunetan sartu gabe, zeren eta badaiteke hortan ere ñabardura zonbeiten beharra. Bainan, Euskaldunen etorkiari buruz, mitoa zen nagusi gelditu Euskal Pesten egitarauak erakusten digun bezala.

Bainan nola jautsi da plazaraino gai hori? Historiaren alorretik literaturarat iragan da lehenik tematika hori. Urte gutti barne, 1853-an hain zuzen, Jean-Martin Hiribarren-nek landu *Eskualdunak* poema epikoaren gai eta mami bilakatu zen ikuspegi heroiko hori. Aski da so egitea, liburu hortan emaiten diren kapitulu izenburuak eta izenburu-azpiak, hain zuzen "Iberia, Eskaldunen jatorria", "Kantabria", "Eskal Herria".. eta abar; garbi dago nondik nora doan idazlea eta zer irudi mota landu nahi duen Euskalduneri buruz. Huna, adibide laburra:

*Nihork ez du munduan Eskaldun adina
Bakharra da bera mendetan egon dena
Nahasteak berteak bere pasaietan
Odola hark du garbi beiratu zainetan*

Eta arbasoen tematika mitiko hori, hunaindiko poesian aurki dezakegu XIX-garren mendeko bigarren parte guzian. Ur-erreka bezala aitzina doa, itxuraz doi bat aldaturik ere. Besteak beste, J.B. Elissamburu-ren *Eskuara eta Eskualdunak* kantua aipa ginezake, bainan mende horren azken urteetan ere eta ondokoaren lehen bi hamarkadetan, J. Barbier-ren gan ikus daiteke "arbaso heroikoen" gai horren garrantzia, *Irrintzina mendian* (1898) edo *Eskualdun Hil-Herriak* (1902) deitu poemetan.

Beraz, ez da harrizkorrik karririk bere egiten baldin badu tematika hori. Irudi heroikoa motibo "estetiko" edo eder-gai bilakatu da ere, Euskal pesteri esker neurri handi batean. Bigarren maileko irudi batzuetan aurkitzen dugu, hala nola "euskal makila" edo "irrintzina" gai arrakastatsuen inguruan sortu irudietan.

Orduko irudietan, iraupenaren eta aspaldikotasunaren gaiari, berezitasunarena lotzen zaie maizenik. Alde hortarik, erran behar da P. Loti-ren *Ramuntcho* deitu liburuak eragin handia ukan duela. Eleberri hortan, Euskalduna guziz sendibera da, herabea eta ixila; bestetarik doi bat berex egoiten da, bere nortasuna eta libertatea zaindu nahiz. Nortasun irudi horiek, Euskal idazkietarat pasatzen dira ere: P. Lhande-n *Autour d'un foyer basque* eta *L'Emigration basque* liburuetan, Jean Etchepare-n *Buruchkak* famatuan, eta baita ere, zonbeit urte berantago, J. Barbier-en *Piarres* deitu eleberrian. Eta liburuetarik plazarat iragaiten dira. Euskaldunek onartzen dute kanpotik eskainia zaien irudia eta zabaltzen dute. Huna, XX-

garren mende hastapenean, E. Dibildots-ek diona P. Loti-ren Euskal sendimenen ikusteko moldeaz:

Il y a découvert, certes, et il a vivement exprimé nos mouvements d'âme les plus généralement humains et certains instincts de notre atavisme particulier.

Itxura heroiko horiek lehen irudi-sorta osatzen dute.

b) Euskaldun zintzoaren eredua:

Ikuspegi mitiko eta erromantiko horrek begitarte argi eta iguzkitsu bat emaiten dio Euskal nortasunari XIX-garren mendeko bigarren partean. Bainan, itxura ederreko alderdi horrek badauka bere kontrakoa. Mende ondarrari buruz, giroa aldatzen da. Gazteak Euskal-Heritik joaten dira, Ameriketarat edo hiri handietarat; 1789-ko Iraultzaren ondorioak sendi dira eta borroka ideologikoa indartuz doa. Baditake, Kanpokoek Euskal Herriaz emaiten duten itxura ilunak ere bere eragina ukan duela giro aldaketa hortan. Ikuspegi hori, iraganari buruz jarria batez ere, eta Donibaneko Euskal bestetan mintzatu zen Alexandre Nicolaï deitu bordales abokatuaren hitzetan garbi ageri da:

Oh! Restez toujours les mêmes, bien Français, mais bien Basques. Filles à vos fan-dangos, pelotaris à vos murs, femmes aux joies de vos chastes intérieurs, enfants à vos devinettes, à vos danses, tous à vos traditions, à votre langue, à votre sol; naissez, aimez, mourez en Basques, dormez enfin dans la paix de vos cimetières si pleins de poésie où la brise fait doucement frissonner les herbes folles, et, le soir, pendant les belles nuits estivales, l'âme de vos ancêtres viendra planer sur vous!

La Tradition basque, p. 164.

Iguzki sartze baten giroa, dudarik gabe. Ez da harritzeko, irudi horiek "identifikazio" baten ondotik barneratu eta, gauza ilunak idatzirik ere.

Ikusten dugun bezala, griña andana bat metatzen da eskualde huntako gizartean. Euskal nortasunari buruz egiten diren galdeak ere aldatu dira anartean. Ez dut erran nahi Euskaldunek etorkiaren gaia edo Euskararen iturriena aldebat utzi dituztela, bainan badituzte denbora berean kezka-iturburu berriak. Hala nola, Euskara nola zaindu desagertzetik; gazteak nola atxik herrian, etabar. Griña horien lekukotasun bezala, baditugu Michel Elissambururen *Lehenagoko Eskualdunak zer ziren* (1889) liburuan, Basilio Jonnateguy-k 1902-ko Urruñako Euskal pestetan aurkeztu zuen testuan, *Eskuara* izenekoan eta oraino, Jean-Pierre Arbelbide-k *Igandea* (1895) liburuari eman zion "Aintzin-solas" famatuan. Huna azken hortarik jalgi zati bat orduko giroaren erakusteko:

Gure mintzayak badu oraino bertze dohain eta probetchu bat Nola hesi hazkarra ogi-landaren edo mahastiaren inguruan, hala-hala dago gure mintzaya Eskual-herriaren eremuetan, Sineste zuzen, bizimolde on eta tieso atchikitzen ditu; bainan bazterretako gezurkeria, egite makur, aztura arrotz eta gachtoak urruntzen ditu.

Zati horrek ez du argi-bide beharrik: ate-hestearen garaia heldu da iparraldearentzat. Orduko euskal-idazlanetan aurkitzen diren gai eta irudietan izenda ditzagun gehien bat ageri direnak: euskal-etxea (etxondoa) eta haren segida, sort-herriari doakon atxikimendua, herri-mina urrun bizi direnentzat, lana eta batez ere laborantza, euskal giroan egiten diren pestak, eta, baita ere, arbasoeri zor zaien atxikimendua, Eliza eta fedea. Erran daiteke, irudi heroikoaren ondotik, "Euskaldun zintzoa"ren garaia jina dela. Eta mende ondarrean eraikitzen den eredu horren laburpen gisan, emanen dizuet "Supazter xokoan" liburuaren aintzin-solasean, 1924-ean erran nahi Hamalaukeko gerlatik landa, Jean Barbier-k idazten zuena:

Eta zerk egiten du Eskualduna zinezko Eskualdun? Elizak, Etcheak, Hil-Herriak, Mintzairak. Horietan datza Eskualdun arima guzia.

Bistan dena, irudi soil eta bakar batzu badira bestalde. Deneri *Piarres Adame* liburuan beti kitzikan eta arraierian ari den umore handiko gizona heldu zaigu gogora, besteak beste. Bainan, halarik ere, aipatu bi irudi sorta horiek dira gehien bat aurkitzen direnak XIX-garren mendeko bigarren partean. Euskaldun heroikoaren irudia eta Euskaldun zintzoarena elgarrekin bizi dira, mende bukaeran, bai idazlanetan, bai kantuetan eta Euskal Pesten ikusgarrietan. Bainan, ageri da bigarrena astiro nagusitzen ari zaiola besteari eta hortarik heldu da, dudarik gabe, M. Goyhenetche-k liburu batean deitzen duen mende ondarreko giro nostalgikoa.

LIBURUAK

- *La Tradition au Pays Basque*, Elkar, Baiona, 1982.
(Actes du Congrès de Saint-Jean-de-Luz et récit des Fêtes basques de 1897)
- "La danse des épées", in *Le Pays Basque*, Pierre Loti, Aubéron, Bordeaux, 1992.
- *Ramuntcho*, Pierre Loti, Presses Pocket, Paris, 1986.
- *Histoire des Cantabres*, Abbé d'Iharce de Bidasouet, 1825.
- *Histoire primitive des Euskariens-Basques*, Agusti Chaho, 1847.
- *Eskaldunak*, Jean-Martin Hiribarren, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1994.
- "Ikusten duzu goizean" eta bertze, J.B. Elissamburu, Ikas, Baiona, 1991.
- *Pierre Broussain, sa contribution aux Etudes basques*, Pierre Charriton, Editions du C.N.R.S, Bordeaux, 1982.
- *Les Basques et leur histoire*, Jean Goyhenetche, Elkar, Baiona, 1993.